

**UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE
AGENTZIAREN GOBERNU KONTSEILUAREN 2014ko IRAILAREN 26ko
BILERAREN AKTA**

BERTARATUTAKOAK:

Gobernu Kontseiluko kideak:

Cristina Uriarte andrea,
lehendakaria
Itziar Alkorta andrea,
lehendakariordea
Juan Andrés Legarreta jauna,
Agentziaren zuzendaria
Iñaki Goirizelaia jauna, UPV/EHUko
errektorea
José María Guibert jauna,
Deustuko Unibertsitateko
errektorea
Aratz Castro jauna
María Paz Espinosa andrea
Carmen González Murua andrea
Guy Haug jauna
Ana Martínez andrea
Gregorio Monreal jauna
Esther Giménez-Salinas andrea

BERTARATUTAKO BESTE
BATZUK:

José Manuel Valle jauna

EZIN ETORRIA ADIERAZI
DUTENAK:

Iosu Zabala jauna, Mondragon
Unibertsitateko errektorea
Óscar Altuzarra jauna

Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Lurralde Ordezkaritzaren (Kale Nagusia 85, 48013 Bilbo) C1 aretoan, 2014ko irailaren 26ko 09:00etan bildu da UNIBASQ Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseilua, Cristina Uriarte andrea buru dela. Alboan adierazitako jaun-andreak bertaratu dira, honako gai-zerrenda honekin:

1. 2014ko uztailaren 3ko aurreko bilkuraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Lehendakariaren txostena.
3. Zuzendariaren txostena.
4. Unibasquen Etika Kodea aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
5. tika Batzordearen Erregelamendua berrestea.
6. Irakasle eta ikertzaileak egiaztatzeko 2015erako deialdia egitea eta, hala badagokio, hura onartzea.
7. Unibasqen Enpresa Ituna.
8. 2015eko Aurrekonturako tasen proposamena eta kudeaketa-plana.
9. Aholku Batzordearen berritze partziala.
10. "Global QA" Sarea sortzea Txileko Akreditarekin sinatutako hitzarmenaren arabera.
11. Galde-eskeak.

1. PUNTUA. 2014-07-03ko aurreko bilkuraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Aurreko bilkurako akta onartu da, Aratz Castro jaunak eskatuko aldaketa bat jaso eta gero.

2. PUNTUA. Lehendakariaren txostena.

Cristina Uriarte andreak Agentziaren jardueraren garapenerako garrantzizkoak diren zenbait gairen berri eman dio Kontseiluari.

3. PUNTUA. Zuzendari jaunaren txostena.

Juan Andrés Legarreta jaunak Agentziaren jarduera garatzeko garrantzitsuak diren zenbait gairen berri eman du.

4. PUNTUA. Unibasquen Etika Kodea aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.

Etika Kodea onartu da aho batez.

5. PUNTUA. Etika Batzordearen Erregelamendua berrestea

Kontseiluak Etika Kodearen Erregelamendua berretsi du.

6. PUNTUA. Irakasle eta ikertzaileak egiaztatzeko 2015erako deialdia egitea, eta, hala badagokio, hura onartzea.

Kontseiluak aho batez onartu du Irakasle eta ikertzaileak egiaztatzeko 2015erako deialdia.

Azken 3 urte hauetan indarrean egon diren ebaluazio-irizpideen funtzionamenduari buruzko txostena eskatzea erabakitzen da.

7. PUNTUA. Unibasqen Enpresa Ituna

Aho batez onartu da proposatutako Unibasqen enpresa-ituna.

8. PUNTUA. 2015eko Aurrekonturako tasen proposamena eta kudeaketa-plana.

Aho batez onartu dira 2015eko aurrekonturako tasen proposamena eta kudeaketa-plana.

9. PUNTUA. Aholku Batzordearen berritze partziala.

Kontseiluaren hurrengo bilkuran eztabaidatuko da gai hori.

10. PUNTUA. "Global QA" Sarea sortzea Txileko Akreditarekin sinatutako hitzarmenaren arabera.

Aho batez onartu da "Global QA" sarea sortzea, Txileko Akreditarekin sinatutako hitzarmenaren arabera.

11. PUNTUA. Galde-eskeak.

Ez dago galde-eskerik.

Cristina Uriarte andreak eskerrak eman dizkie kontseilariari bertaratzeagatik eta eskaini duten laguntzarengatik.